

Ganbarako argitan

Haur eta helduentzako askotariko ekintzak eta jarduerak prestatu dituzte Sagüganbaran, Durangoko Azokak irauten duen lau egunetarako.

Etxeko leku ezkutua da askorentzat ganbara, leku magikoa, misteriotsua. Sagüganbara Durangoko Azokan ere leku berezia izatea nahi du Berbaro Elkartek. «Sekretuz eta irudimenez betetako mundu bat, gozatzeko leku bat, eta ez bakarrik haurrentzat, ezta soilik literaturarekin zerikusia duten ekintzetarako ere», argitu digu Berbaro Elkarteko Oihane Barrutiak.

Azken batean, Barrutiaren hitzetan, «haurrentzat sortzen diren produktu, ikuskizun, tailer eta abarren gunea da ganbara. Sekretuz, irudimenez eta magiaz gozatzeko mundua. Nagusien transmisioaren bidez, haur eta gazteak euskal kulturara hurbiltzen dituen gunea. Irakurzetatasuna bultzatzeko txokoa ere bada, eta dibertsioa ipuinetan ere badagoela aldarrikatzeko eremua».

Helburuak betetzeko, askotariko jarduerak eta tailerrak antolatzen dituzte urtero. Aurten ere, Durangoko Azokako lau egunetan, abenduaren 5etik 8ra bitartean, entretenitzeko askotariko proposamenez beteko dituzte ganbarako txokoak.

Orotara, hiru guneetan bereizten da Sagüganbara: areto nagusia, areto txikia eta hall-a. Eskulanak egiteko baliatzen da hall-a. Ikuskizunak, aurkezpenak eta beste egiteko erabiltzen dute areto nagusia. Eta areto txikian, tailer bereziak egiten dira. Normalean, parte hartzaile mugatua izaten dute areto txikiko ekintzek.

Denetariko ekintzak egongo dira azokako egunetan: ipuin kontaketak, tailerrak, emanaldiak, aurkezpenak, jolasak... –alboan duzue egitarau osoa-. Aurten, lehenengoz, erabiltzaileek hala eskatuta, gurasoentzako hitzaldiak eskainiko dituzte Juan Kruz Igerabidek eta Juan Karlos Alonsok, areto txikian.

Ohi bezala, Sagüganbarako hiru txokoak jendez gainezka egotea es-

pero dute antolatzaileek. Izan ere, «ekintza guztietan jende ugari egoten da, eta parte hartzaileen aldetik oso balorazio onak jasotzen ditugu», Barrutiak aitortu digunez.

Aurten, gainera, indartsu hasiko dute azoka, lehen egunean ikasle eguna ospatuko baitute. Egun horretarako, eskaintza bateratua egin zuten azokako gune guztiek, eta ikastetxeei aurkeztu zitzaizkien. Erantzuna «paregabea» izan da. «950 ikaslerentzako aurreikusia genuen, eta, azkenean, hiru milatik gora ikaslek eman dute izena», dio, pozik, Barrutiak. Halabeharrez, zozketa egin behar izan omen dute, beraz.

Ikasle egunean zein gainerakoetan Durangora joaten bazarete, ez ahaztu Sagüganbara bisitatzea; sekretuz berteriko lau egun dituzue zain.



BERBARO ELKARTEA

Sagüganbarako egitaraua

ABENDUAK 5

Areto nagusian

• **10:00etan eta 13:30ean:** *Egun batez kazetaritailerra, Anboto* aldizkariaren eskutik.

• **12:30ean:** Liburu Erraldoia sari banaketa.

• **17:00etan:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Areto txikian

• **10:30etik 15:30era:** *Egun batez idazle* tailerra, Yolanda Arrietaren eskutik. Ordu beteko saioak egingo ditu.

ABENDUAK 6

Areto nagusian

• **12:30ean:** *Xaldun Kortin, jolastu gurekin!*, Euskokultur Fundazioaren eta Labrit Multi-mediaren eskutik.

• **15:30ean:** *Tximeletak aire-*

an liburuari buruz ariko da Xabier Olaso idazlea.

• **17:00etan:** Maite Franko ipuin kontalaria.

• **18:00etan:** Afrika aldeko ipuin tradizionalen kontaketa, ONGD Afric / Forum taldearen eskutik.

Areto txikian

• **11:00etan:** Mahai jolasak.

• **16:30ean:** Kantu-jolas tailerra.

• **18:00etan:** Gurasoentzako hitzaldia, Juan Kruz Igerabide idazlearen eskutik.

Hall-ean

• **15:30ean:** Eskulanak: txotxongiloak.

ABENDUAK 7

Areto nagusian

• **11:00etan:** *Dutea* trilogia, Paxkal Bourgoinen eskutik.

• **12:00etan:** Elektroboom, Patxi Solorzano eta Xanoren eskutik.

• **13:00etan:** *Gerrak ez du izenik* liburuari buruz ariko dira Bilbao eta Mutuberria egileak.

• **17:00etan:** Ipuin kontaketa, Libe Anduezenaren eskutik.

• **18:30ean:** *Titiriteroen ipuinak*, Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren eskutik.

Areto txikian

• **11:00etan eta 12:00etan:** *Liburu bat, mundu bat* tailerra. Ordu beteko saio bana.

• **17:00etan:** *Haur literaturaren eragina* haurren garapenean hitzaldia gurasoentzat, Juan Karlos Alonsoren eskutik.

Hall-ean

• **15:30ean:** Eskulanak: txapak.

ABENDUAK 8

Areto nagusian

• **11:00etan:** *Maddi eta Antton* obrari buruz ariko dira Itziar Elias eta Iñigo Aranbarri. Harrerari buruzko antzerkia da.

• **15:00etan:** *Afrikaren bidai* txotxongilo emanaldia eskainiko du Txatxilipurdi elkar-teak.

• **16:00etan:** Txotxongilo tailerra, Txatxilipurdi elkar-tearen eskutik.

Areto txikian

• **11:00etan:** Kantu-jolas tailerra.

• **15:30ean eta 17:30ean:** Familientzako tailerrak: *Fikzioak*. Ordu eta erdiko saio bana.

Hall-ean

• **15:30ean:** Eskulanak: orri markatzaileak.